

Tokian tokiko telebistagintzaren programazioa, ordainsariak eta erronkak

Edorta Arana, Patxi Azpillaga eta Beatriz Narbaiza
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea

Telebista lokalaren etiketapean oso errealitate oparoa daukagu Euskal Herriko ikus-entzunezkoen panoraman. Berrogeita hamarretik gora dira transmisio moduari, emisio-esparruari, helburuei, finantzatzeari, egitura-tzeari eta programazioari dagokienez oso desberdinak diren kanalak. Gainera, gertutasunerako, erreferenzialtasun informatiborako, hizkuntza-normalkuntzarako, integrazioarako eta egituraketa sozialerako tresna ezin hobetzat hartu diren kanal horiek, gaur egun, eztabaidaren muinean eta zurrumbilo kontzeptualean jira-biraka daude.

Panorama honetan, tokian tokiko kanal hauen eskaintza programatiboan murgilduko gara artikulu honetan, eta gaur egungo egoera hobeto ezagutzeko eta etorkizun hurbilerako joerak zeintzuk izan daitezkeen ikusteko balioko digu.

There are more than fifty local television stations in the Basque Country. But, even though, included under the same label most of them have many differences in the transmission system, coverage, aims, financing, organisation and programming. Apart from that, concepts like proximity, referentiality, linguistic normalisation, instruments of social integration are in the middle of a conceptual turmoil that have shaken the local television structure nowadays.

In this panorama, we will analyse in depth the programming of these channels in order to know better the offer and try to detect the tendencies for the near future.

1. Telebistagintzaren lekukotasuna

Telebistagintzak urrezko ezteiak beteak dituen honetan, zaila da esaten orduko zuri-beltzezko tramankulu haiek eta konbergentziaren eta digitalizazioaren garaiko hauek zertan duten antza.

Zalantzarik ez dago, telebista da ikus-entzule gehien eta kontsumo-maila altuena duen hedabidea, eta sozialki eraginkorren kontsideratzen dena; horrek berebiziko indarra ematen dio, baita aldaketa-uneetan ere sendo mantentzeko.

Emititzen hasi zirenean (1935ean Estatu frantziarrean eta 1956an espainiarrean) monopolioan aritzen zen zerbitzu publiko modura definitu zen, norabide bakarreko hedabidea zen, zentralista antolakuntzan, eredu ideologiko, sozial eta kultural bakarraren transmisorea eta kontrol politikoaren zama gainetik kendu ezinean ibiliko dena harrezkero.

Baina urte hauetan berrikuntza asko bizi izan ditu: segundoko hogeita bost irudi eskaintzea, besteak beste. Horiez gainera, 80ko hamarkadako birrarautzearen ondorioz, telebista pribatuak jaio ziren eta urteetako monopolio estatuala hautsi egin zen.

Urte gutxiren buruan, transmisio-sistemari egokitutako aurrerapen teknologikoen poderioz, lurrazaleko uhin analogikoei, satelite bidezko seinaleak gehitu zitzaizkien eta, ia aldi berean, kable bidezkoak.

Hamarkada gutxiren barruan, kanal publiko bat edo bi edukizetik eskaintza oparagoa izatera pasatu da; eta telebistagintzako hainbat arlo eraldatu dira: edukiak, emisio-eremua, jabetzako eta kudeaketa, transmisio-teknologiak eta abar.

Mende berriaren hasierak beste bidegurutze teknologiko eta komunikatibo batean gaudela erakutsi digu: digitalizazioa eta konbergentzia.

Hedabideen bilakaeran, eta telebistagintzaren kasuan bete-betean, garapen teknologikoa eta medioaren eraldaketa batera etorri izan dira. Gaur egun esaterako, digitalizazioak honako ondorio hauek ekarriko ditu: eskaintza ugartuko da, konbergentzia (informatikaren, telebistaren eta telekomunikazio-industrien artean), interaktibitatea eta, zalantzarik ez, ikus-entzunezko elektrogailu honen birdefinizioa.

Zertzelada arinez aipatu ditugun elementuen artean badago beste bat, idatzi honen arrazoia, hain zuzen: eremua. Esangura asko dituen hitza izanik, bere baitan emisio-esparrua, erreferentzia-gunea eta komunikazio-eremua ditu. Globalizazioa eta tokian tokikotasuna dira telebistagintzan dauden bi indar-gezien helmugak, eta testuinguru horretan kokatu behar ditugu azken aldi gertatu diren aldaketarik nagusienak.

Izan ere, mundu-mailako emisio-eremua duten satelite, estatu-mailan aritzen diren kanal edota internetez hedatzen direnez gain, telebista lokalak dauzkagu begien aurrean. Egoera berri honek, *telebista* eta *eremu* hitzak nahasiz, konbinazio ugari sortzen du.

Azken bi hamarkadetan, gertuko telebistagintzak jaiotza-tasa izugarria izan du gure inguruan, eta Euskal Herrira bertara laurogeiko hamarkadara arte heldu ez bazen ere, ordutik aurrera asko ugaldtu dira lokaltasuna definigarri gisa duten kanalak.

Baina, aldaketa-garaian, definizioak ez dira errazak izaten, eta horixe gertatzen zaio tokian tokiko telebistagintzari. Azkenaldian izan duen garapen atrofikoaren ondorioz, lege-marko arautzailerik gabe, balizko publizitate-merkatuaren esperantzan, estatu-mailako talde mediatiko erraldoien presentzian eta oraingoa baino etorkizun oparagoaren zain, telebistagintza lokalaren etiketapean, bere baitan oso errealitate desberdinak jasotzeko malgutasuna izan du. Azkenean, gertuko telebistagintzak errealitate oso desberdinak hartzen ditu bere magalean zurrumbilo semantikoa zorabiatu.

Kataluniako esperientziaz edanez, Prado-k eta De Moragas-ek horrela definitzen dute tokian tokiko telebistagintza:

...aquella que s'adreça a una comunitat local delimitada territorialment, però que ho fa amb contiguts relatiu a l'experiència quotidiana dels receptors, a les seves preocupacions, al seu patrimoni cultural, a la seva memòria històrica, etc. amb voluntat d'incrementar la participació social de la comunitat.

Per tant, proximitat fa referència a l'àrea geogràfica de difusió (local), però sobretot es refereix als usos socials dels continguts. El concepte de proximitat, aplicat a la televisió, implica el reconeixement d'un escenari compartit entre l'emisor (l'estació de televisió) i l'audiència, i això ha de quedar reflectit en el contingut final de la seva programació, principalment en els telenotícies, però també en la resta de programes: reportatges, entrevistes, debats, talk shows, documentals o magazins, en s'expressa el debat cultural de cada comunitat (Prado eta De Moragas, 2002: 76).

Definizio horrek, askotan gertatzen den bezala, non gauden baino hobeto adierazten du nora jo beharko genukeen. Hala ere, abiapuntu interesgarria izan daiteke Euskal Herriko telebistagintza lokala aztertzeko, eta, antolatutako gabeko eremuan, irizpiderik gabe ibil ez gaitzen.

Esan dugun modura, telebistagintza lokalaren etiketapean mugitzen den kanal asko da gure artean. Ondarroa TB, Plentzia TB eta Kaito TB aitzindariekin batera, gaur egun berrogeita hamarretik gora ditugu ikusgai. Biderketa kuantitatibo horrek aldaketa ugari ekarri ditu, besteak beste, kanal horien helburuetan, jabetzian eta kudeaketan, emisio-eremuan eta, guri gehien interesatzen zaiguna, programa-eskaintzan. Azken horretan zentratuko gara, baina lehenik eta behin, telebistagintza lokalaren egoera nolakoa dugun ikusiko dugu. Horretarako, *Telebistagintza lokalaren panorama Euskal Herrian* (Arana, Azpillaga eta Narbaiza, 2003) izeneko ikerketaren ondorioak erabiliko ditugu¹.

1. Euskal Herriko Unibertsitateak finantziaturiko (1/UPV 00016.323-H-13687/2001) *Telebistagintza lokalaren panorama Euskal Herrian* izeneko ikerketa-proiektu zabalean oinarrituta dago artikulua hau. Artikulu honen egileak ikerketaldiaren partaide berberak dira eta 2002an hasi ziren eta gaur egun ere lan horretan dihardute. Bide horretan, oso lagungarriak izan zaizkigu telebista-kanal desberdinetan elkarrikerketatu ditugun kolaborazioak; baita Josu Amezaga eta Miren Josu Aranburu ikerlariek eskainitako laguntza ere.

2. Euskal Herriko telebistagintza lokalaren erradiografia

Gaur egungo panorama argitzeko asmoz, hona hemen gure inguruan ditugun telebista lokalen zerrenda. Ia hirurogeira heltzen den kopuru honetan sartu ditugu transmisio-sistema guztiak erabiltzen dituztenak (uhinak, kablea eta internet-sarea) eta gaur egun emititzen dutenez gain, duela oso gutxira artekoak eta aurki aire-ratuko direnak ere sartu ditugu. Baina, zehatzak izateko asmoz, honako definizio instrumental hau erabili dugu, telebistagintza lokalaren zedarriztatze geopolitikoak zaila den giro aldakorrean: emisio-eremua Euskal Herri osoa baino txikiagoa duten telebista-kanalak.

Lehenik eta behin, guztiak alfabetikoki ordenatuta aurkeztuko ditugu eta, gero, kanal bakoitzari buruzko hainbat zehaztasun eskainiko ditugu.

Bigarren azpiatalean, honako hau zehaztuko dugu: kanal bakoitza non dagoen kokatuta, noiztik emititzen duen (eta desagertu direnen kasuan noiz arte aritu izan den), nolakoa den erabiltzen duen transmisio-sistema, ia komunikazio-talde baten partaide den eta, azkenik, zenbatekoa den audientzia potentziala.

2.1. Tokian tokiko telebisten zerrenda alfabetikoa (51+6)²

Alava 7 (Gasteiz)	GoiTB (Arrasate)
Alto Nervión TV (Laudio)	Goierri TB (Lazkao)
Angelu (Angelu)	Gran Bilbao Televisión (Bilbo)
Baiona (Baiona)	Ikas TB (Donostia)
Bilbovisión (Bilbao)	Jaitxiki TB (Zarautz)
Buñuel TV (Buñuel)	Kaito TB (Azpeitia)
Canal 4 (Iruñea)	Kanal On (Andoain)
Canal 58 (Laudio)	Kateberria (Eibar)
Canal 6 (Iruñea)	Localia Gipuzkoa (Donostia)
Canal Bizkaia (Bilbo)	Mendaro TB (Mendaro)
Canal Gasteiz (Gasteiz)	Oarso TB (Lezo)
Canal Local Arguedas (Argetas)	Plentzia TB (Plentzia)
Canal Local de Funes (Funes)	Proyección TV (Bilbao)
Canal Local Mendavia (Mendabia)	Ribaforada TV (Ribaforada)
Canal Peralta TV (Peralta)	Tafalla TV (Tafalla)
Durango Telebista (Durango)	Telcascante (Kaskante)
Ele Bista-Kanaldude (Aldude)	Tele 7 (Barakaldo)
Ermuko Telebista (Ermua)	Tele Marcilla (Martzilla)

2. Zerrenda honetan, ikuspegi zabala edukitzearren, beste hauek ere sartu ditugu: internetez aritzen direnak (Angelu, Baiona, Donibane Lohizune eta Bilbo), duela gutxi desagertu den Ermuko Telebista eta itzuli den Gran Bilbao Televisión eta, azkenik, aurki aiereratzeokotan den Goierri Telebista.

Ondarroako TB, oso aspaldikoa denez, ez dugu zerrenda honetan aipatu.

Teledonosti (Donostia)
 Telecadreita (Kadereita)
 Telecaparroso (Kaparroso)
 Teledonosti (Donostia)
 Telefusti (Fustiñana)
 Telerrrebote (San Adrian)
 Telesko (Eskoriatza)
 Televitoria (Gasteiz)
 Ttipi-Ttapa TB (Bera)
 TV Cirvonera (Zintroniko)
 TV de Milagro (Milagro)

TV Villafranca (Alesbes)
 TVPI (Donibane Lohizune)
 Txingudi TB (Irun)
 Urdaibai Telebista (Gernika)
 Uribe Kosta TB (Areeta)
 Urnieta TB (Urnieta)
 Urola TB (Urretxu)
 Valtierra TV (Balterra)
 Xaloe TB (Bera)
 Zarauzko TB (Zarautz)

2.2. Tokian tokiko telebistak lurraldeka

ARABA (5)

Izena	Nondik	Noiztik	Nola	Taldea	Audientzia potentziala
Alava 7	Gasteiz	2002	Uhinez	Correo	228.921
Alto Nervión TV	Laudio	2000	Uhinez	Localia	45.000
Canal 58	Laudio	1998	Uhinez	Ez	20.453
Canal Gasteiz	Gasteiz	1996	Uhinez; Kablez	Localia	286.387
Televitoria	Gasteiz	1995	Uhinez	Cadena Local	228.921

BIZKAIA (9+2)³

Izena	Nondik	Noiztik	Nola	Taldea	Audientzia potentziala
Bilbovisión	Bilbo	2000	Uhinez; Kablez	Correo	1.100.000
Canal Bizkaia	Bilbo	1997	Uhinez; Kablez	Localia	1.000.000
Durango Telebista	Durango	2002	Uhinez	Ez	90.495
Ermuko Telebista (desagertua)	Ermua	1995-2001	Kablez	Ez	6.000
Gran Bilbao TV	Bilbo	2000, 2003	Uhinez	Ez	865.799
Plentzia TB	Plentzia	1987	Uhinez	Ez	3.643
Proyección TV	Bilbo	2000	Internetez	Ez	-
Tele 7	Barakaldo	1989	Uhinez; Kablez	Ez	865.799
Teledonosti	Bilbo	1992	Uhinez; Kablez	Cadena Local	1.200.000
Urdaibai Telebista	Gernika	2002	Uhinez	Ez	30.000
Uribe Kosta TB	Sopela	2000	Uhinez	Ez	100.000

3. Lehenago ere esan dugun modura, zerrenda honetan beste hauek ere sartu ditugu: duela gutxira arte emititzen zuen Ermuko Telebista eta, loaldi luzetik itzartu berri den Gran Bilbao TV eta, azkenik, internetez transmititzen duen Proyección TV. Edozelan ere, ez dugu hiru horien programazioaren gaineko azterketarik egin.

GIPUZKOA (15+1)⁴

Izena	Nondik	Noiztik	Nola	Taldea	Audientzia potentziala
GoiTB	Arrasate	2000	Uhinez	Ez	62.010
Goierrri	Lazkao	Aurki	Uhinez	Ez	63.510
Ikas TB	Donostia	1994	Uhinez	Ez	311.398
Jaitxiki TB	Zarautz	1992-1995 2001	Uhinez	Ez	21.078
Kaito TB	Azpeitia	1986	Uhinez	Ez	25.000
Kanal On	Andoain	1988	Uhinez	Ez	13.814
Kateberria	Eibar	1994	Uhinez	Ez	28.219
Localia Gipuzkoa	Donostia	2001	Uhinez; Kablez	Localia	311.398
Mendaro TB	Mendaro	2002	Uhinez; Kablez	Localia	1.500
Oarso TB	Oiartzun	1996	Uhinez	Ez	60.000
Teledonosti	Donostia	1994	Uhinez; Kablez	Correo	500.000
Telesko	Eskoriatza	1985	Kablez	Ez	3.925
Txingudi TB	Irun	1997	Uhinez; Kablez	Localia	85.000
Urnieta TB	Urnieta	1992	Uhinez; Kablez	Ez	5.518
Urola TB	Urretxu	1998	Uhinez	Ez	25.000
Zarauzko TB	Zarautz	1991	Uhinez; Kablez	Ez	28.000

NAFARROA (21)⁵

Izena	Nondik	Noiztik	Nola	Taldea	Audientzia potentziala
Buñuel TV	Buñuel	1996	Kablez	Ez	2.387
C. L. de Funes	Funes	1997	Kablez	Ez	2.150
C. L. Mendavia	Mendabia		Kablez	Ez	3.568
C. L. Arguedas	Argetas	1996	Kablez	Ez	2.278
Canal 4	Iruñea	1994	Uhinez, Kablez	Localia	500.000
Canal 6	Iruñea	2002	Uhinez, Kablez	Promecal	500.000
Canal Peralta TV	Peralta	1999	Kablez	Ez	4.602
Ribaforada TV	Ribaforada	1999	Kablez	Ez	3.095
Tafalla TV	Tafalla	1996	Uhinez	Cadena Local	10.172
Tele Marcilla	Martzilla	1996	Kablez	Ez	2.337
Telecadreita	Kadereita	2001	Kablez	Ez	1.867
Telecaparroso	Kaparroso	1996	Kablez	Ez	2.383
Telecascante	Kaskante	1995	Kablez	Ez	3.900
Telefusti	Fustiñana	1996	Kablez	Ez	2.312
Telerrrebote	San Adrian	1996	Kablez	Ez	5.106
Ttipi-Ttapa TB	Bera	1997	Uhinez	Ez	15.000
TV Cirvenera	Zentroniko	1997	Kablez	Ez	5.313
TV de Milagro	Milagro	1996	Kablez	Ez	2.573
TV Villafranca	Alesbes	1996	Kablez	Ez	2.691
Valtierra TV	Balterra	1996	Kablez	Ez	2.508
Xaloa TB	Elizondo	1997	Uhinez	Ez	20.000

4. Goierrri Telebista jaio barik badago ere, zerrenda honetan sartu dugu aurki emititzen hastekoa delako.

5. Lurralde honen zerrendan kanal guztiak sartu ditugun arren, programazioaren azterketa sakonagoa modu erregularrean emititzen dutenen kasura mugatu dugu. Beraz, kanpoan geldituko dira noizik behin emisioak aieratzen dituzten kanalak, esaterako, Telefusti, Buñuel TV, C. L. Arguedas eta C. L. Funes.

IPAR EUSKAL HERRIA (1+3) ⁶

Izena	Nondik	Noiztik	Nola	Taldea	Audientzia potentziala
Angelu	Angelu	2000	Internetez	Ez	-
Baiona	Baiona	2000	Internetez	Ez	-
Kanaldude TB	Baigorri	2000-2002	Uhinez	Ez	-
TVPI	Donibane Lohizune	1999	Internetez	Ez	-

3. Programazioa itxuratzean ageri diren elementu bereizgarriak

Telebista-kanal batek okupatzen duen frekuentzian eskaintzen den guztiari programazio-taula edo programazioa deitzen bazaio ere, hitz horien atzean dagoenak alderdi asko ditu. Gure inguruko telebista lokalen programazioaren konplexutasunaren azterketa egiteko zazpi elementu hauei egingo diegu kasu:

- **Maiztasuna**, alegia, astean zenbat egunetan emititzen duen telebista-kanal bakoitzak. Emisioen zenbaterokotasunak, zalantza barik, kanalaren jarraitkortasunaren, eta, horren ondorioz, eraginkortasun sozialaren neurria ematen du. Gaur egun, herriko jaietan, gabonetan edo hauteskunde-garaietan bakarrik emititzen duten nafar Erriberako kanal batzuez aparte (Buñuel, Funes, Argetas eta Fustiñana), gainerakoak emisio iraunkorrekoak (ikasturte osora zabaldua) eta maiztasun handikoak (astean behindik gorakoak) dira.
- Emanaldiaren **osaera** eta erabiliko dituen bi elementu nagusien pisua zenbaterainokoa den, hau da, programen eta karruselaren (agenda, publikizitatea, ordutegiak, karteldegia...) arteko banaketa nola lortu den. Eguneroko emanaldia antolatzean, kasu gehienetan, telesaio desberdinak erabiltzeaz gain *karrusela*⁷ deitu izan dena pantailaratzen da. Karruselaren izaera informatiboa, publizitarioa, denbora-pasazkoa edo kanalaren identifikagarri gisakoa ahaztu barik, betegarri gisa duen erabilera ezin dugu aipatu gabe utzi. Kanal gehienetan erabiltzen den arren, karruselaren bidez, hogeita lau ordutara eta egunerora zabaldu dira hainbat kanal xumeren (Erriberakoak) eta ertainen (herri txikiak edo euskara hutsezkoak) emanaldiak.
- Programazio-taularen **eraikuntza** kanalean bertan erabakitakoa edo katean eginikoa izateak zeharo desberdintzen ditu beren artean telebista lokalak. Izan ere, guk katea deitu dugun telebista kanal-sareak edo multzoak, sarritan, programazio-taulak ezartzen ditu bere baitan dituen kanal desberdinentzako. Katean antolatutako emanaldi horrek programazioa egun osora zabal dezake, genero aldetik, anitzago bihur dezake eta eskaintzen dituen produktuen kalitatea goratu dezake; baina, ordain handiak ditu, esaterako, eta garrantzitsuena, lokaltasuna. Katean bilduriko kanalak (edo kateek sorturikoak, huts-hutsean), gehienetan, hiriburuetan edo herri handienetan kokatutakoak izaten dira: Localia Gipuzkoa, Canal 4, Canal Bizkaia edo Canal Gasteiz.

6. Internetez emititzen duten Angeluko, Baionako eta Donibane Lohizunekoez gain, noizean behin, azkenean 2002ko neguan, pantailaratu izan den Kanaldude Telebista sartu dugu. Azken horrek, bere historian, bideo-zinten salmenta-sistema erabili izan duela aipatu behar da.

7. Euskal Herrian "teletestua", "pantailazoak", "powerpointa" eta "buklea" hitzak gehiago entzuten diren arren, proposagoa iruditzen zaigu Kataluniako *karrusela* erabiltzea.

- Saio desberdinen **jatorria**; alegia, aire ratzen diren programak barne-produkzio-koak izateak izateak edo kanpoan ekoitziak kanalaren izaera perfilatuko duen elementua da. Barne/Kanpo produkzio-ko saioen orekan eragina izaten dute, besteak beste, kanalaren helburuak, emisio-esparru demografikoak, baliabide produktiboak eta ekonomikoak, katean integratuak egoteak, emisio-hizkuntzak eta genero desberdinen presentziak.
- Pantailaratzen diren saioak **estreinakoak** edo **errepikatuak** izateak ondorio zuzenak ditu programazio-taularen nortasunean. Izan ere, errepikapena kanal guztiek erabiltzen duten baliabidea den arren (*prime-time*-n lehen emanaldia, eta audientzia-osaera desberdina duten ordutegietan edo “desorduetan” errepikatzea, esaterako), txikienez ezinbestekoa da, produkzio-maila xumean mugitzen dira eta. Errepikapenak eragin handiagoa du genero batzuetan (fikzioan edo dokumentaletan) eta txikiagoa zuzenekoetan (albistegiak, erretransmisioak...).
- Euskal Herrian ditugun **hizkuntzen** presentziak kanalaren izaera definitzen du, eta dituen helburuei buruzko informazio interesgarria eskaintzen du. Hemen bi multzo garbi ageri dira: euskararen normalkuntza xedetzat hartuta jaino direnak; eta bestelako jomugak dituzten kanalak; azken horien emanaldietan euskararen presentzia, oso baxua da (kopuruari eta kalitateei dagokienez).
- Programazio-taularen eraketa-lanetan, **genero** desberdinen presentziak erabateko eragina dauka. Orohar, tokian tokiko telebistagintzak dituen mugen artean bat genero-eskaintza murrizta da. Askotan, informazioaren inguruan antolatu diren programazio-parrillak bestelako generoetako saioekin aberastu dira; esaterako, eztabaida, dokumental, elkarrizketa-saio, kirol eta abarrekin. Baina, produkzio-aldetik garestiagoak edo zailagoak diren generoak dira gertuko telebisten eskaintzatik kanpo gelditzen direnak; katean integraturik daudenek, ordea, aipaturiko generoetako programak bertatik lortzeko aukera izaten dute.

4. Programazio-ereduak Euskal Herriko telebistagintza lokalean

Programazio-taula definitzen duten elementuen arabera (besteak beste aurreko pasarteetan aipatu ditugun maiztasuna, programazioa/karrusela, programazio-autonomia, barne/kanpo-produkzioa, errepikapen-maila, euskararen presentzia eta genero desberdinek daukaten pisua), Euskal Herriko telebistagintza lokalaren batazbesteko profila nolakoa den ikusiko dugu. Horretarako, kanal guztien programazio-taularen hustuketa⁸ egin ondoren, ageri diren datu orokorrenak eta definitgarrienak azpimarratuko ditugu⁹, labur-labur.

8. Aztertu ditugun programazio-taulak 2002-2003ko denboraldikoak dira, eta kanal bakoitzean aste bateko lanegunetako eta jaiegunetako hogeita lau orduak hartu ditugu kontuan. Datu-basearen ustiaketa estadistikoa SPSS programarekin egin da.

9. Emisio erregularra duten kanalak soilik hartu ditugu kontuan. Lehenik eta behin, karruselaren eta berariazko programazioaren arteko oreka nolakoa den ikusiko dugu. Hortik aurrera, eskaintzaren azterketa sakonagoa egiterakoan (barne/kanpo emisioa, euskara, generoak eta abar) karruselari dagokion kopurua kendu egin dugu.

Edozelan ere, gure artean dauzkagun telebista-kanal ugari bezain desberdinak sailkatu eta komunean dituzten berezitasunak azpimarratu guran, bost programa-zio-eredu bereiziko ditugu: kanal handiak, katean integraturiko kanal ertainak, euskarazko kanalak, kanal ertainak eta kable bidezko kanalak.

Lehenengo taldean, **kanal handiak** deiturikoan, hiriburuetarako edo ingurukoe-tarako emititzen dituztenak kokatu ditugu. Kanal hauen lan-eremuan populazio handia pilatzen da, eta horrek publizitate merkatua indartu egiten du. Gainera, hauetariko kanal asko kateetan integratuta daude (Localia eta Correo taldeetan, nagusiki) eta horrek potentzialitate handia dakarkie teknikoki, programatiboki eta ekonomikoki. Multzo honen barruan daude ondokoak: Alava 7, Bilbovisión, Canal 4, Canal 6, Canal Bizkaia, Canal Gasteiz, Localia Gipuzkoa, Tele 7, Televitoria, Teledonosti eta Teledonosti.

Katean integraturiko kanal ertainak, bestalde, populazio gune ertainekoak edo txikikoak izan arren, eta giza baliabide zein tekniko eta ekonomiko mugatuak eduki arren, telebista lokalen sareren batean txertatu direlako, beraien programa-zio-eskaintza, ordu kopuruan zein kualitatiboki garatuagoa da. Hauek dira eredu honetan sailkatu ditugunak: Alto Nervión TV, Mendaro TB, Tafalla TV eta Txingudi TB.

Euskarazko kanalen izaeran eta identifikagarritasun sozialean euskarazkoa izateak esangura berezia du. Gainera, hizkuntza horretan aritzeak eragin zuzena du arlo ezberdinetan: audientzia potentzialean, emisioa antolatzekeo tankeretan, ekoizpen propioaren kopuruetan, errepikapen-mailan eta, geroago ikusiko dugun modura, genero bakoitzaren presentzian. Bost dira multzo honetan kokatu ditugun kanalak: GoiTB, Oarso TB, Ttipi-Ttapa TB, Xaloa TB eta Zarauzko TB.

Herri ertainetan zein txikietan kokatutako telebista **kanal ertainen** ezaugarriak honako hauek dira: asko jaio berriak dira eta legez arautu gabeko merkatu lehiakorrean tinkotzeko astirik ez dute izan; ikus-entzunezko industria sendorik ez dute atzetik, teknikoki eta profesionalki eta, orohar, ez dute etorkizuna bermatzeko modurik izan. Canal 58, Durango Telebista, Goierri TB Jaitxiki TB, Kanal On, Kaito TB, Ikas TB, Kateberria, Plentzia TB, Urdaibai Telebista, Uribe Kosta TB, Urnieta TB eta Urola TB dira kanal ertainen artean sailkatu ditugunak.

Nafarroako Erriberako eta Eskoriatzako telebista lokalek, **kablea** dute emisioe-tarako sistema bakarra, eta, horrek lokaltasuna bermatzeaz gain, bestelako berezitasun batzuk ezartzen ditu. Kanal hauek, neurri handi batean, udalaren magalean sortu eta kudeatzen dira; nahiko mugatuta daude arlo askotan: dirua, emisio-orduak, ekipamendua eta langileak; hala ere, zerbitzu publiko eta parte-hartzailearen filosofiatik oso hurbil mantentzen dira. Buñuel TV, C.L. de Funes, C.L. Arguedas, Telecadreita, Telecaparroso, Telefusti, C.L. Mendavia, Canal Peralta TV, Ribaforada TV, Tele Marcilla, Telecascante, Telesko Telerrrebote, TV Cirvonera, TV de Milagro, TV Villafranca eta Valtierra TV daude multzo honetan.

Hona hemen batezbestekoak eta aipatutako bost ereduiei dagozkien daturik adierazgarrienak.

1. taula. Programazio-ereduen eskaintza

	Emisio-maiztasuna	Programazioa vs. Karrusela	Emisio propioa vs. Katean	Barne vs. Kanpo produkzioa	Estreina vs. Errepikatua	Euskara
Batezbestekoa		44,7-55,3	42,7-57,3	34,6-65,4	58,5-41,5	22,6
Kanal handiak	Maiztasun handikoa	91-9	30,4-69,6	28,8-71,2	69,1-30,9	1,1
Kanal ertainak, katean	Maiztasun handikoa	85,2-14,8	11,8-88,2	11,9-88,1	77,1-22,9	1,2
Euskarazkoak	Maiztasun handikoa	51,3-48,7	100-0	100-0	11,3-88,7	100
Kanal ertainak	Maiztasun handikoa	63,9-36,1	47,9-52,1	22,8-77,2	56-44	10,3
Kable bidezkoak	Maiztasun handikoa eta baxukoa, eta Noizbehinkakoa	6,3-93,7	100-0	98,6-1,4	17,9-82,1	0

2. taula. Programazio-ereduen edukia generoka

	Informazioa	Kirolak	Lehiaketak	Fikzioa: serieak eta finalak	Fikzioa: marrazkiak	Kultura	Dibulgatiboak/ Hezitzaileak	Miszelanea	Infoshowa	Musika	Telesalmenta + 906	Bestialakoak
Batezbestekoa	18,7	13,3	0,3	11,4	3,1	1,2	7,7	11,4	4	11,8	10	7
Kanal handiak	18,3	6,2	0,8	14,4	4,3	1,2	10,4	11,1	6,3	10,4	16,4	0,1
Kanal ertainak, katean	11,9	6,7	0,1	20,5	5,9	0,8	15,2	6,2	6	15	11,6	-
Euskarazkoak	26,7	10,4	-	-	-	0,6	6,3	37,7	0,5	1,6	-	16,2
Kanal ertainak	11,4	28,9	-	8,2	1,6	1,6	1,6	5,5	1,5	17,4	4,6	17,7
Kable bidezkoak	93,9	2,7	-	-	-	0,2	-	3,2	-	-	-	-

Aurrekoak dira markatu ditugun bost programazio-ereduen elementu definigarriak. Egin dezagun orain eredu horien azterketa sakonagoa.

4.1. Kanal handiak

Telebista-kanal handi hauek ondo egituraturako programa-eskaintza dute. Egunerora, eta askok 24 ordura, hedatu dituzte beraien emanaldiak; programak dira nagusi (%91), eta bigarren mailako betegarri gisa eta kanalaren identifikagarri gisa baino ez da erabiltzen karrusela.

Taulan ikus daitekeenez, kanal handi hauen programazioaren %30,4 bertan erabakitzen da, eta gainerakoa kateak berak markatzen du. Autonomia mugatu hori barne-produkzio maila baxuan ere ikus daiteke. Halaber, aineraturako programen %28,8 baino ez da bertan ekoitzia.

Bestalde, eta katean txertatuta egotearen onuraz baliatuz, errepikapen-maila nahiko apala da (%30,9), eta horrek freskotasun handia ematen dio programazio-taulari.

Euskararen presentzia hutsaren hurrengoa da, aipatzen ari garen ereduko kanaletan.

Kanal handien eskaintza, generoei dagokienez, zabala eta ondo hornitua da, ETB, Tele 5 eta TVE1ek eskaintzen dutenaren oso antzekoa. Orotariko telebista eta kanal lokal hauen arteko antzekotasunak nabariak dira Fikzioaren pisuan (%18,7) baina baita ere Informazioan (%18,3). Hirugarren multzo nagusi batean kokatuko ditugu Telesalmenta eta 906 deituriko generoa (%16,4); bertan produktu zein zerbitzu desberdinei dedikatutako publizitate-bukleak eskaintzen dira (baita tele-erotismoa, tarota eta abar ere). Kopuru aldetik atzerago, baina aipatzeko moduan, datoz: Mixelanea (prentsa arrosa, umorea, tele-errealitatea %11,1), Musika (%10,4) eta Dibulгатiboak/Hezitzaileak (%10,4). Mugatuagoa da beste genero hauen pisua: Infoshowa (%6,3) eta Kirolak (%6,2).

4.2. Katean integraturiko kanal ertainak

Populazio-gune ertainekoak edo txikikoak izan arren, eta giza baliabide zein tekniko eta ekonomiko mugatuak eduki arren, telebista lokalen sareren batean txertatu direlako, beraien programazio-eskaintza ordu (kopuruan zein kualitatiboki) garatuagoa da.

Honako hauek dira eredu honetan sailkatu ditugunak: Alto Nervión TV, Mendaro TB, Tafalla TV eta Txingudi TB.

Eredu honetako kanalaren programazio-taulari begiraturaz gero, programek daukaten pisua agerian gelditzen da (%85,2) eta, beraz, karrusel eta ajuste-taulen lekua %14,8ra mugatzen da. Aldi berean, katearekiko menpekotasuna handia da, kopuruek erakusten duten bezala. Horren ondorioz, aineratzen diren orduetatik %88,2 katean erabakitako programazioa da eta %11,8, bakarrik, kanalean bertan sortutako emisio-taulan.

Tokian tokiko telebista hauen neurri berekoek egiten dutenaren kontrara, kate baten partaide izateraren eragina errepikapen-mailan ere suma daiteke. Aineratu-

tako programen %22,9 errepikatutako saioak dira eta %77,1 lehen aldikoak. Kopuru horiek pentsaezinak dira kate baten bermea ez duten kanalentzat.

Esandakotik ondoriozta daitekeenez, kanal hauetan euskarari eskaintzen zaion lekua oso txikia da (%1,2), eta askotan ingelerari ematen zaiona baino baxuagoa, gainera.

Beraz, aipatu ditugun elementuen arabera, katean txertaturiko kanal lokal hauen izaerak eta eskaintzak tamaina eta emisio-eremu zabalagoa dutenen itxura hartzen dute. Pantailaratzen dituzten generoak aztertuz gero ere, lau handien presentzia agerian gelditzen da, eta tamaina honetako kanalekin dituzten desberdintasunak agerian uzten dituzte. Esaterako, Fikzioak ia ez du lekurik tamaina txikiko kanalen aldean, kateaturiko hauetan, aldiz, %26, laugarren lekua genero horri dagokio. Bestalde, beste hiru generotan ere soma daiteke katearen eragina: Dibulгатiboak/Hezitzaileak (%15,2), Musika (%15) eta Informazioa (%11,9). Gainerako generoen presentzia antzeko proportzioetan banatzen da Kirolak, Miszelanea eta Infoshow genorokoen artean.

4.3. Euskarazko kanalak

Hizkuntzaren normalkuntza-prozesua desorekatua izateak, ikus-entzunezkoen industria propiorik ezak eta, besteak beste, euskarazko kanalen arteko elkar-laguntzak eraginda, euskaraz aritzen diren kanalak sarritan multidifusiora jotzera eta programazio-taula apalago bat eskaintzera kondenaturik daude. Hala ere, egunerokoak erakusten digu beraiena dela karruselaren eta programazioaren arteko orekarik erakargarriena; eta, errepikapen-maila altua duten arren (programen %88,7 berriro emititzen da), programazio-taula osatua, egituratua eta azkarra daukate.

Generoei dagokienez, aldiz, mugatua da euskarazko kanalen eskaintza. Miszelanea (%37,7), Informazioa (%26,7) eta Kirolak (10,4) dira pisu handiena daukatenak eta ikustezinak dira Fikzioa, Lehiaketak, Infoshowa eta Musikari dedikaturikoak.

Esan dugun moduan, barne-produkzioan gorpuzturiko eskaintza honek erreferentzialtasun sozial sendoa du, eta pisu handia dute gertuko informazioak eta kronika sozialak.

4.4. Kanal ertainak

Lehenengo taulan ikus daitekeenez, karruselen pisua handia da, eta emanaldiaren %36,1ean publizitateak, agendak eta udalaren karteldegiak osatzen duten karrusela daukagu. Gainerako %63,9 programek betetzen dute.

Kanal ertain hauen emanaldiaren %22,8 barne-produkzioa izaten da eta gainerakoa kanpoko ekoizpenari dagokio. Azken horren baitan, eta eguneko programazio-taula osatzeko helburuarekin, kanal ertain hauek, satellite bidez heltzen zaizkien seinaleak aireratzen dituzte barra-barra (%47,9).

Multidifusioa, alegia, programa bera egun batzuk geroago errepikatzea, oso baliabide erabilia da kanal hauen artean. Izan ere, emanaldiaren %44 lehendik aireraturiko saioez osatzen da.

Emisio-orduen %10,3 izaten da euskarazkoa.

Askotan arautu barik, baina denbora-tarte handia eskuratzen duten satellite bidez jasotako edukiak zabaltzen dituztenez, altua da Kirola (%28,9) eta Musika (%17,4) generoen pisua. Atzerago datoz Informazioa (%11,4) edo Fikzioa (%9,8) generoetan sailkatutako programak.

4.5. Kable bidezkoak

Kable bidezko kanalen emanaldia, neurri handi batean, karruselean oinarritzen da, eta oso baxua da (%6,3) berariazko programen ehunekoa. Gainera, programen emisio-tartea oso apala izateaz gain, errepikapenetara jo behar izaten dute oso sarri, hori bai, ordutegi desberdinak eta audientzia potentzial ugariena lortu guran konbinaketa irudimentsuak erabiliz.

Barne-produkzioak emisio-orduen %98,6 betetzen du, eta Nafarroako Erriberakoak nagusi diren sailkapen honetako kanaletan euskarak ez du presentziarik.

Kanal hauetan nagusitzen den generoa Informazioa da (%93,9) eta bera da programazio-taula osoa artikulatzen duena, beti ere Miszelaneak (%3,2) eta Kirolak (2,7) osaturik.

5. Programazioaren osagarriak Euskal Herriko telebistagintza lokalean

Ikusi dugun bezala, sei dira programazio-eredu bakoitza aztertzerakoan kontuan hartu ditugun elementuak. Osagarri horietan sakonduz, hona hemen zelako desberdintasunak dituzten beraien artean eta batazbesteko datuetatik bereizten ote diren.


5.1. Emanaldien osaera

Programen eta karruselaren arteko banaketa nolakoa den aztertzen badugu, kanalen arteko desberdintasunak agerian gelditzen dira. Izan ere, kanal handienera karruselaren pisua baxua da (%9) eta txikietan, aldiz, emisio-orduen %93,7ra heltzen da agendak, publizitateak, ordutegiek, karteldegia eta abarrek osaturiko produktua.

Tokian tokiko telebistagintzan, karruselak lortzen duen lekua eta etorkizunerako duen potentzialitatea aztertu beharrekoak direla iruditzen zaigu. Horretarako, karruselaren errebisio kritikoa egin beharra dago: produktiboki, kreatiboki eta komunikatiboki dituen ahalmenak erabiliz, baina betegarri hutsa izan ez dadin, irizpideak markatuz.

Edozein kasutan ere, ezkuta ezina da; automatizaturiko emisioen joera gero eta sendoagoa denean, gaur egungo telebistagintza lokalean, eguneko ordu guztiak osatzeko eta kanalaren identifikagarriak aireratzeko, informazio-tresna indartsua izan daitekeela karrusela.


Ondoko taulan ikus daiteke zenbaterainoko aldea dagoen programazioa osatzen duten bi elementu nagusien orekan, programazio-eredu desberdinetan.



1. grafikoa. Emanaldiaren osaera: programak versus karrusela

5.2. Emisioaren autonomia-maila

Tokian tokiko kanalen programazio-taula eraikitzerakoan bi multzo nagusi soma daitezke: parrilla beraiek erabakitzen dutenena (kanal txikiak, euskarazkoak eta kable bidezkoak), erositakoez edo etxean bertan ekoizitako programez baliatuz; eta, bestetik, katera jotzen dutenak programak eta batzuetan emisio-multzo osoak bertatik ekartzeko. Bigarren horiek programazio-taulan autonomia gutxiago dute; eta horien artean nagusi dira kanal handietan (hiriburuetakoak eta Localia, besteak beste) sartuta dauden txikiak: Mendaro TB eta Alto Nervión TB, esaterako.




2. grafikoa. Emisioaren autonomia: kanalak erabakia versus katean

5.3. Barne- eta kanpo-produkzioaren arteko erlazioa

Kanal bakoitzak aineratzen dituen programen jatorri produktiboari erreparatuz gero, telebista horrek dituen ahalmenaz, nortasunaz eta, ondorio orokor gisa, ikus-entzunezko egitura sendo eta iraunkorra sortzeko bidean, zelako pausoak emateko moduan dagoen jakin daiteke

Elementu honi dagokionez, berriro ere, kanalen arteko desberdintasunak agerzten dira bai eta euskaraz aritzen direnen heldutasuna eta aldi berean mugak; izan ere, euskarazko saio guztiak barne-produkzioak dira eta horrek fikzioan edota beste generoetan bide luzerik ez egin izana erakusten du.




3. grafikoa. Barne- eta Kanpo-produkzioaren oreka

5.4. Programa errepikatuen pisua telebistagintza lokalean

Multidifusioa (programa berbera behin baino gehiagotan eskaintzea) kanal handiek eta txikiek erabiltzen duten errekurtsua da. Izan ere, tokian tokiko telebista-emandegiek ez dute biltegi oso handia edukitzen eta kondnaturik daude *stock* minimo hori ondo kudeatu behar izatera. Bestalde, onartu beharra dago eguneko ordu guztietara hedatu nahi den edozein kanalek beharrezkoa duela programazioaren eta ordu-multzoaren araberako audientziaren arteko kudeaketa errentagarriena egitea.


Ezin da ukatu, bestalde, kanal handien kasuan, katean egoteak ematen dituen baliabideez baliatzeak errepikapenetara jo beharra saihesten duela, sarritan. Kanal ertainetan edota euskarazkoetan, multidifusioa erruz erabiltzen den baliabide programatiboa da, erraz uler daitekeenez.



4. grafikoa. Errepikapenaren gestioa kanal lokaletan

5.5. Euskararen pisua telebistagintza lokalean

Tokian tokiko telebistagintzak ez dio euskarari aukera askorik eskaini, kanal gutxi batzuetan izan ezik. Izan ere, katean emititzeak eta kanpo-produkzio kopuru altua edukitzeak zuzen-zuzenean dakar euskarak leku txikia lortzea eguneroko emanaldietan. Aitzitik, lekukotasuna, gertuko komunikazioa eta euskararen normalkuntzaren bidea batera egin nahi izan duten telebistetan (GoiTB, Ttipi-Ttapa eta Xaloa TB) euskara hutsezkoa da programazio osoa.




5. grafikoa. Euskararen presentzia

5.6. Programa-genero nagusien pisua gaur egungo telebistagintza lokalean

Ehunekotan ikus daitekeenez, Informazioa da, zalantza barik, generorik indartsuena, baina ez bakarrik kopuru aldetik, baita kualitatiboki daukan garrantziagatik ere. Izan ere, albistegiak izaten dira neurri handi batean eguneroko programazio-taula artikulatzeko erabiltzen den zutabe sendoena, eta horri dokumentalak, eztabaida-saioak, erreportajeak eta abar gehituz gero, Informazioaren nagusitasuna agerian gelditzen da. Bestalde, Informazioa da zerbitzu publikoa, gertuko erreferentzialtasuna eta iritziak zein informazioak komunitatera helarazteko generorik egokiena.

Horrez gainera, garbi dago telebistagintza lokala garatuz doan neurrian, bizkarrezur modura darabilten Informazioaz gain bestelako generoak loratzen direla parrilletan. Hona hemen gaur egungo eskaintza osatzen duten genero nagusien presentzia.



6. grafikoa. Genero nagusien pisua.

6. Eguno telebista lokalaren eskaintza eta etorkizuneko joerak

Lehenago aipatu dugun modura, Euskal Herrian ere, telebista lokalaren etiketapean oso errealitate desberdinak loratu dira. Azken urteotan, tokian tokiko telebistagintzak izan duen neurri eta molderik gabeko garapenak gertuko telebistagintzaren kontzeptua bera ere kolokan jarri izan du. Egoera honetan, mugimendu sozialen, erakunde publikoen eta telebistagintzara dedikatzen diren aktore enpresarialen hausnarketa sakona beharko litzateke; betiere, elementu ezinbestekotzat hartuta zerbitzu publikoa izatea, emisio-esparru txikia izatea, erreferentzialtasun informatibo, kultural eta sozial propioa izatea, lurraldeen eta komunitateen integrazioarako eta egituraketarako tresna izatea, eta informazio-tresnak izatea.

Panorama honetan, eta aztertu ditugun puntuetan oinarrituta, telebistagintza lokalaren funtzioa eta programazioa uztartu nahian arituko gara ondoko lerroetan. Beraz, gaur egungo egoeraren azterketatik, eta programazioa ardatz modura hartuta, kanal lokalen eskaintzaren perfila eta berorren kudeaketari buruzko proposamen batzuk luzatuko ditugu.

Telebistagintza lokalaren eskaintzak bi ardatz nagusi ditu: programen hornikuntza-mekanismoak, batetik, eta produktu-multzo horren kudeaketa eta, ondorioz, programazio-taularen eraikuntza, bestetik.

Euskal Herriko telebista lokalen kasuan, eta dauden desberdintasunak ahaztu gabe, hiru dira hornikuntzari, *input*-ari, dagozkion faktore eraginkorrak: kate bateko partaide izan eta bertatik programak jasotzea; barne- zein kanpo-produkzioko programen aukerak zabalik edukitzea, eta, ekoizpen-ahalmenaren ondorioz, programa-generoen aukeraketa ere zabala izatea.

Output-ari dagokionez, beste hiru aipatuko ditugu: karruselaren eta berariazko programen arteko oreka; errepikapenen kudeaketa; eta, azkenik, programazio-taula eraikitzeke erabiltzen diren taktikak eta teknikak.

Hornikuntza-prozedurak oso lotuta daude, gaur egungo panoraman behintzat, Euskal Herrian ikus-entzunezko industria sendo eta iraunkor baten falta baitago. Izan ere, gaur-gaurkoz, telebista-kanal gehienek ez dute trukatzeko eta koprodukzioarako jarrera ausartik, ez ohiturarik ezta baliabiderik ere (eta batzuetan arrazoi guztiak batera). Eta hori izaten da, gaztelera-koentzat, baina bereziki euskara erabiltzen dutenentzat, garapenerako muga handienetarikoa bat. Guztiz bestelakoa da sarean dauden telebisten egoera. Horiek, kateatuta sortu zirelako edo urteen poderioz xurgatuak izan direlako, *stock* zabal bezain anitzetako ateak zabalik izaten dituzte. Besteak beste, Localia, Correo edota Promecal kateekin bat egiten duten kanal lokalek (hala izendatzeak kontraesan kontzeptualak ageri-agerian uzten ditu, behin eta berriro) autonomia-maila desberdinak dituzte: kateko programazio-taula osoa emititzen dutenak (Alto Nervión TV); katearen emisio zentralizatura zenbait ordutan konektatzen direnak eta gainerakoak beraiek betetzen dituztenak (Localia Gipuzkoa, Canal 4 edo Alava 7); eta, azkenik, parrilla eraikitzeke autonomia osoa dutenak eta katea hornikuntza-bide huts bezala erabiltzen dutenak (Telebilbao edo Teledonosti).

Hemen, Euskal Telebistak herri honetako ikus-entzunezkoen industrian duen nagusitasuna kontuan izanik, telebistagintza lokalaren lagungarri, suspergarri eta koordinatzaile lana joka dezakeela ezin dugu aipatu gabe utzi. Betiere, ente publikoaren eta helburu berbera duten herri-mailako beste batzuen arteko erlazioa konfiantzan eta osagarritasunean gauzatu beharko litzateke, lehenik eta behin.

Programa *input*-ari buruz ari garenez, aipatzekoa da kanal bakoitzak ekoizteko eta kanpoan egindakoaz jabetzeko dauden mekanismo desberdinak. Barne/Kanpo-produkzioaren arteko orekan, lehenengoari dagokionez, barne-produkzio mailarik altuena lortzen dutenek, kanal gehienetan, informazioa genero modura hartzen dute, gero datoz Kirolak eta Miszelanea. Betiere, kanal lokalaren filosofiatik hurbilen dauden programak eratuz: gertuko informazioa, hurbileko erreferentzia kulturala, soziala eta linguistikoak, eta dauzkaten baliabide ekonomikoak eta teknikoak ahalik eta ondoen erabiliz.

Kanpo-produkzioaren kasuan, gehienetan diru-mugak agertzen dira eta, katean jartzen diren generoez gain, beste genero-mota batzuk garatzeko muga ikaragarria izaten da: fikzioa, zuzeneko ekitaldiak eta abar. Gainera, lehen ere esan dugun modura, koprodukzioa eta produktu lokalen merkatua garatu gabe daudenez, bide horrek ez du askorik eman, orain arte, behintzat. Honetan ere, Kataluniako telebista lokalen erlaziotik badugu zer ikasi.

Telebista lokaletan nagusitu diren generoak, lehenago ere esan dugu, Informazio, Kirolak, Fikzioa, Musika eta Miszelanea dira. Eskaintza murrizta genero-kopuruari dagokionez, eta, agerian gelditu den bezala, barne produktiotik bizi direnentzat eta katean integraturik ez daudenentzat are mugatuagoa. Hemen ere, telebista lokalen arteko elkar-lana eta ikus-entzunezkoen industria sendoago baten beharra nabaritzen da, telebista bideragarria eta hobea egin nahi bada.

Programazio-taula, *output*-a, eraikitzeke, faktore askok dute eragina. Lehenik eta behin, kanal lokalaren beraren filosofia ageri da eztabaida-gunean: telebista lokalak orokorrangoak direnen alternatiba edo osagarria izan behar du? Izan ere, azkenaldian, zenbait kateren eskutik, Localia eta Correo besteak beste, lokalaren izaera eta funtzio soziala zalantzan jarri dira kanal txiki batzuen bidez Estatu-mailako "beste" kate bat eraiki baita. Deskonexio-lana betetzen zuten kanal "lokal" horiek TVE, ETB eta Tele 5en konpetentzia izan dira, zalantza barik, eta ideia horrekin sortu dute programazio-parrilla osoa eta multigenerikoa. Beste kanal batzuk, aldiz, gertutasunera lotuago daudenak, beraien mugen, baldintzen eta aldektasunen jakitun, kate handiei konpetentzia egin beharrean, orokortua den kontsumoaren gehigari bihurtu dira. Alegia, telebistaren aurrean emango ditugun minutuetatik bakar batzuk izango dira kanal lokalaren programa batzuk ikusteko: albistegia, elkarrizketa, erreportajeak edo dena delakoak. Bigarren mailako kontsumo horrek ez dio pisurik kentzen kanal lokalari, baizik eta bere neurria zein den jakinik, errentabilizatzeko bidea eskaintzen dio.

Baina, telebista-kanalen programazio-taula antolatzerakoan, hiru faktore hartuko dira kontuan: programaren eta karruselaren arteko denbora banaketa, errepikapenen erabilera eta parrillak eraikitzeke teknikak.

Telebista lokal gehienek *stock* falta handia izaten dutenez, eta gainera, barne-produkzioarako mugak izaten dituztenez, txikia izaten da pantailartzeko moduan izaten duten programa-kopurua. Gainera, orokortu egin da programazioa eguneko 24 orduetara zabaltzeko joera, eta horrek telebista lokal xumeen mugak ageriago uzten ditu. Baina, berrikuntza teknologikoez txikiei laguntzeko ere balio dute, eta zentzu horretan ulertu behar dira emisioa automatizatzeko dauden baliabideak. Memoria handiko disko gogorak, urrutitik aktibatzen diren magnetoskopiokoak eta bestelako baliabide informatikoak oso erabilgarriak dira emisio-orduak egunetik gauera zabaltzeko eta betegarri hutsak izan ez daitezen pausuak emateko. Horrela, berriazko programez gain, aireratzen diren beste produktu askok (TV3k komertzializatzen duen Automatic TV Pro, adibidez) izaera informatiboa, gaurkotze automatizatua eta freskotasun ikaragarria ematen diote lehen frekuentzia okupatze eta kanalaren identifikagarri soila ziren hainbat tarteri.

Bestalde, estreinako eta errepikatutako programen arteko oreka eskaintza antolatuaren eta arrakastatsuen giltza izan daiteke. Ikusi dugun modura, *stock* gabeziaren ondorioz, katearekiko autonomia falta dutelako edota produzitzeko ahalmenik ez dutelako, kanal askok errepikapena erabili behar izaten dute. Muga horiek positibizatuz, eta errentabilizatuz, multidifusio-politika irudimentsua izan daiteke kanal lokalen arma eraginkorrena. Horretarako, daukaten audientziaren ezaugarriak, kontsumo-ordutegia eta portaerak ondo baino hobeto ezagutu behar dituzte, eta horretaz baliatu.

Errepikapenen kudeaketa azkarraren ildotik, programazio-taula eraikitzeke tekniken pasarterako bidea irekitzen digu. Izan ere, *Martin Txiki*-ren eta *Basajaunen* arteko lehia honetan, telebista lokalek ezingo diote kate handiei irabazi, osagarritasunaren filosofiatik kanpo aritzen ez badira. Beraien neurria ezagutzea eta xumetasunean eraginkor izatea da daukaten armarik sendoena tokian tokiko kanalek. *Zapping*-a nagusi dugun kontsumo-portaeran, kanal lokalen eginkizuna beti izan

beharko da “beste” aukera bat eskaintzea, gertutasuneko tresna ahalik eta ondoen erabiliz, baina betiere kontsumo-tarte txikian arituko direla jakinik. Ikusle gutxik ikusten dute egun guztian edo gau guztian telebista lokalaren programazioa; kanal horretan noizean behin minutu batzuk pasatzea eta, ahal bada, programa ezagun eta garrantzitsu batzuekiko fideltasuna lortu behar da: eguneroko albistegia, aste-buruko futbol-emaizak eskaintzen dituen kirol-saioa, herriko jaiei eskainitako ma-gazinea, eta abar.

Progamazio-taularen diseinua eta kudeaketa beste tresna indartsu bat da emandegi lokalentzat. Izan ere, eta adibide gisa, parrilla molde berbera aplikatuz, eguneko ordu desberdinetan errepika daitezkeen multzoak sor daitezke, eta horiek errepikapen-teknikak erabiliz errentabilizatu. Teknika horiek multidifusioa errazteaz gain, audientziaren araberako konbinazioak ahalbideratzen dituzte. Parrilla horiek, Euskal Herritik kanpoko beste toki batzuetan aplikatu izan diren bezala, albiste-gietan izaten dute beharrezko mugarrria eta beraien inguruan antolatzen dira gainerako programak. Antolaketa-modu berbera, esan dugun modura, gaurkotze minimoarekin eguneko beste ordu-multzo batzuetan ere aplika daiteke.

Ikusi dugunaren arabera, programazioak (telebistek eskaintzen dituzten edu-kiak), kanal bakoitzak dituen helburuekin, lan-filosofiarekin eta baldintza produkti-boekin erlazionatuta egon beharko luke. Baina, hasieran aipatu dugun legez, gaur egungo nahaste-borraste kontzeptualean, telebistagintza lokalaren mugak urtu egin diren garaian, eskaintzaren beraren izaera eta helburuak nahaspilatu egin dira. Artikulu honen atzean dagoen ikerketak egiten duen diagnosia beharrezkoa zen gauzak nola dauden jakiteko; baina, orain, beharrezkoak dira neurri arautzai-leak, telebistagintza lokala gertukoa eta sozialki baliotsua izango bada, behintzat.

7. Bibliografia

- Arana, E., Azpillaga, P. eta Narbaiza, B. (2002): “Colonización o desarrollo en la televisión local” in *III. Jornadas de Comunicación y Cultura Contemporáneas. Las Televisiones Locales en Europa: Proximidad, Programación y Políticas de Comunicación*, Universidad de Santiago de Compostela, Konpostela.
- Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación (2002): *Censo de Televisiones Locales*, AIMC, Madril. (<http://www.aimc.es>)
- Chaparro, M. (1998): *Radiotelevisión pública local y alternativa*, Perspectivas, Cadiz.
- de Moragas, M. eta Garitaonandia, C. (1999) (ar.): *Televisión de proximidad en Europa. Experiencias de descentralización en la era digital*, Bartzelona, Universitat Autònoma de Barcelona, Universitat Jaume I, Universitat Pompeu Fabra eta Universitat de València.
- Kualitatea Taldea (2000): *Euskararen sustapena telebisten bidez*, Kualitate, Bilbo. Mimeografiatua.
- Navararo, J.A. (1999): *La televisión local. Andalucía: la nueva comunicación*, Fragua, Madril.
- Prado, E. eta de Moragas, M. (2002): “Les télévisions locales a Catalunya. De les experiències comunitàries a les estratègies de proximitat”, *Quaderns del CAC-en zenbaki berezia*. Consell de l'Audiovisual de Catalunya, Bartzelona.